txintxarri

2024-07-19 OSTIRALA 1.676. ZENBAKIA

TXINTXARRI ALDIZKARIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

LASARTE-ORIAKO UDALA

Egunerokoaz, zirika eta umoretik

Hilaren 26an egingo dute Santa Ana eguneko parodia; Manuel Sagardiak berreskuratu zuen ekimena, 1951. urtean / 5

Desabantailan daudenentzat

'Ekinbat!' proiektua martxan jarriko dute, desabantaila egoeran dauden gazteen inklusioa errazteko / 3

Indarkeria matxista, etxebizitza, osasungintza edota kirola landu dituzte udalbatzarrean / 2

Santa Ana iritsi aurreko egunak girotzeko, pintxo goxoak prestatuko dituzte ostalariek / 4

Aintzinako ofizioak erakutsi ditu Alurr Dantza Taldeak, emanaldi eder baten bitartez / 6

Karmengo Ama Birjinaren eguna ospatzeko meza egin dute aurten Oria auzoko kaperan / 7

Ostadar SKTko atleta Naroa Furundarena Urkolarekin denboraldiaren errepasoa egin dugu / 10

Lasarte-Oriako korrikalari zein triatletak lehiaketaz lehiaketa ibili dira azken hilabeteetan / 12

MERKEALDIA

2 MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20

MULTIÓPTICAS

943 37 74 55

Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA

eskatu hitzordua WhatsApp bidez

www.multiopticas.com

Galdera eta erreguak izan dira mamitsuenak

Indarkeria matxistaren aurkako jaietako protokoloa, etxebizitza, osasungintza eta kirola izan dituzte hizpide udal korporazioko zinegotziek gai zerrendako azken puntuan, oposizioko alderdiek udal gobernuari galderak egin dizkiotenean

Txintxarri

Ikasturte honetako azken ohiko bilkura aurrera eraman du udal korporazioak. Gai zerrendako aurreneko gaiak azkar batean jorratu dituzte. 2022ko Kontu Orokorrak eta Lasarte-Oriako Udalean aldi baterako kontratazioak egitearekin zerikusia izan duten bi puntu onartu dituzte: batetik, Elkartu Pertsona Ezinduen Federazio Koordinatzailearen alegazio bat; eta, bestetik, kontratazio horiek kudeatzeko poltsen araudiaren lehen aldaketa. Ostean ireki dute galdera eta erreguetarako txanda, saioko tarte mamitsuena izan dena.

Ehunka herritar manifestatu ziren osasungitza publikoaren alde apirilean. TXINTXARRI

Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos alderdiak ireki du galdera eta erreguen txanda. Bozeramaile Miguel Angel Tolosak alkateari galdetu dio ea zergatik ez dituen ekarri udal gobernuak azken asteetan egindako bilkuren aktak. Valdiviak erantzun dio prest dituztenean eramango dituztela plenora.

EH Bilduk zenbait gai mahaigaineratu ditu. Horietako bat, indarkeria matxistaren aurkako jaietako protokoloa. Horri buruz eztabaidatu dute ondoren Uxue Loinaz zinegotziak eta alkateak berak. EH Bilduren ordezkari horrek adierazi duenez sanpedroetan ez zituzten jarraitu iazko protokoloan jasotako –aurtengoa onestera ez dira iritsi Lasarte-Oriako Berdintasun Kontseiluko kideak; mugimendu feministak ez zuen proposamenarekin bat egin, joan den urtekoa baino "atzerakoiagoa" zela iritzita– urrats denak bete, egun horietan jazotako erasoen aurrean: "Batzorde informatiboa deitu, mugimendu feministarekin koordinatu, salatu... Zergatik ez duzue horrela egin?". Valdiviak erantzun dio jarraibide horiek "zehatz-mehatz" jarraitu dituztela eta herriko mugimendu feministarekin koordinatutzat eman dutela afera, udal gobernuko kide den Nuria Fernandez Berdintasun kontseiluko kidea delako. Loinazek jakinarazi du informea eskatuko dutela.

Kirola eta osasungintza

Kirolari buruzko pare bat galdera egin ditu ostean EH Bilduko zinegotzi Oihan Agirretxek: elkarteentzako aurtengo dirulaguntzak noiz aurkeztuko dituen udal gobernuak eta hurrengo Kirol batzordea noiz deituko duen departamentu horretako buru Goizalde Pildain jeltzaleak. Zinegotzi horrek hartu du hitza, erantzuteko: "Aurtengo dirulaguntzak hilabetea amaitu aurretik ateratzea espero dugu; teknikoki amaituta daude. Bestalde, abuztu amaieran hasiko da lanean Maialen Chourraut kiroldegiko kudeatzaile berria eta orduan egingo dugu hurrengo batzordea".

Etxebizitza izan da landu duten beste alorretako bat, zehazki, Zabaleta auzoan udalaren jabetzakoak diren hamalau bizitokien egoera eta Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko prozesua. Lehenengo kontuari buruz alkateak esan du Alokabideko arduradunarekin bildu zela hilabete hasieran eta zehaztu dituztela eraikin horiek alokairura ateratzeko baldintzak: akordioa irailean izenpetuko dute. Bigarren aferaren gainean, berriz, zehaztu du Ikertalde enpresa kontratatu duela udalak herriaren analisia egiteko eta hilabetea amaitu aurretik aurkeztuko duela txostena.

Azkenik, herriko osasun zentroaren egoeraz jardun dira. Alkatea eta herriko osasun zentroko zuzendari Amaia Gonzalez berriki bildu dira Donostialdeko ESIko arduradun Eider Uzkudunekin. Gauza askori buruz aritu zirela gogoratu du alkateak eta honela laburtu du landutakoa: "EPE bat deituko dute abendua baino lehen gure herriko osasun zentroan hutsik dauden sei kupoetatik lau betetzeko; pazienteen erreferentziazko pertsonak erizainak izango direla, hori dela sistemaren bilakaera; 2012ra arte udalerrian genuen larrialdi zerbitzua ez dutela berrezarriko eta Hernanira joaten segi beharko dugula; eta osasun zentroa ez dela anbulategi bihurtuko momentuz".

Eskolako materiala erosteko laguntza emango du udalak

Datorren ikasturterako ikasleentzako koaderno, mantal, estutxe eta bestelakoak erosi nahi dituzten familiek dirulaguntza eska dezakete baldin eta 40.001 euro baino gutxiagoko sarrerak badituzte urtean.

Urtean 25.000 euro baino gutxiago irabazten dituztenek 110 euro jasoko dituzte; 25.001 eta 33.000 euro artean ingresatzen dituztenek, 80; eta 33.001 eta 40.000 euro artean jasotzen dituztenek, 50. Materiala herriko saltokietan eskuratu behar dute herritarrek irailaren 30a baino lehen eta eskaerak egiteko epea irailaren 2tik 30era artekoa izango da. Udalerrian erroldatuta egon behar dute eskatzaileek.

'Lasarte-Oria zure objektiboan' lehiaketa, martxan

Udalak iragarri du *Lasarte-Oria zure objektiboan* lehiaketa egingo duela 2025eko egutegia herritarrek ateratako argazkiekin osatzeko. Parte hartzeko azken eguna urriaren 25a izango da. Saridun bakoitzak 100 euroko erosketa bonu bat irabaziko du egitasmoarekin bat egiten duten komertzioetan gastatzeko. Egutegiaren azalera eramango duten irudiaren egileak beste 50 euroko txartel bat ere poltsikoratuko du.Lasarte-Orian erroldatuta egon eta gutxienez 16 urte izan behar dituzte partaideek eta bakoitzak hiru argazki bidali ahalko ditu; horietan, udalerriko eremu edo jarduerak islatu behar dituzte. Irudiek originalak eta horizontalak izan behar dute.

LOTME mendi klubeko kide Juan Luis de la Mata hil da

Taldekide batekin mendian lasterka egin bitartean jazo da ezbeharra. Samina eragin du kirolariaren heriotzak

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak (LOTME) Juan Luis *Juanlu* de la Mata kidearen heriotzaren berri eman du. Hilaren 14an, mendian beste taldekide batekin korrika zihoala gertatu zen ezbeharra. Elkarteko zuzendaritzako kide eta sortzaileetako bat izan zen de la Mata. Mendi ekimen ezberdinetako antolakuntzan parte hartu du, hala nola, ekainaren 23an egin zen familia ibilaldian.

Kirolari modura, mendi proba ezberdinetan parte hartu zuen bai motzak baita luzeak ere, Tolosako T3T edo Zegama-Aizkorri horien artean; errepidean, aldiz, hamaika egin zituen, Lasarte-Oria Bai! krosa, Behobia-Donostia...

Hilberria agurtzeko elizkizuna gaur arratsaldean egingo dute, San Pedro parrokian, 18:00etan. Berria herrian zabaldu zenetik maitasun eta abegi mezu ugari jaso ditu. LOTMEk Juanluren familia eta lagunen atsekabean lagun izan nahi du.

Juan Luis de la Mata, Lasarte-Oria Bai! krosean helmugaratzen. TXINTXARRI

Ekinbat! proiektua aurrera eramango duten eragileetako kideak; ezkerretik, lehena, Ikertze Kultur Elkarteko Nuria Fernandez. TOKIKOM

Gazteen komunitateak josteko proiektua

'Ekinbat!' egitasmoa martxan jarriko dute, desabantaila egoeran dauden gazteen enplegagarritasuna eta inklusioa errazteko. Sorginlore Gizarte Elkarteak, Ikaslan Gipuzkoak, Zabalduz kooperatibako Batzen proiektuak eta Ikertze Kultur Elkarteak aurrera eramango dute

Txintxarri

Datorren ikasturtea hastearekin batera martxan jarriko dute Ekinbat! proiektua Sorginlore gizarte elkarteak, Zabalduz kooperatibako Batzen proiektuak, Ikaslan Gipuzkoak eta Ikertze kultur elkarteak aliantzan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren babesarekin, Gipuzkoan desabantaila egoeran dauden gazteen enplegagarritasuna eta inklusioa erraztea da egitasmoaren helburu nagusia, eta horretarako, gizartean, komunitatean eta kulturan parte hartzea sustatzen duten testuinguruak sortuko dituztela iragarri dute bultzatzaileek. Horrez gain, eragile estrategikoei bideratutako emantzipaziorako funtsezko ezagutzak zabaltzen dituzten tresnak ere garatuko dituzte.

Aipatu ekimenean parte hartzea "funtsezko elementua" dela nabarmendu dute: "Gazteekin oinarrizko gaitasun soziolaboralak eta errotze soziokulturala garatuko ditugu, baita ekosistemarekiko elkar elikatzea ere". Era berean, parte hartzeak enplegu aukerak sustatzea ahalbidetuko duela ere azpimarratu dute. Gaineratu dute, genero ikuspegia, prebentiboa eta sistemikoa dituen proposamena dela, eta "euskararen sustapena eta jasangarritasuna" barne hartzen dituela.

Hiru azpi proiektu

Ekinbat!ek erronka bakarrari erantzunak bilatzea du helburu, eta, horretarako, hiru azpi proiektu zehatz garatuko dituzte ekimenean parte hartzen duten eragile ezberdinek.

Gazteekinbat! izango da horietako bat. Pedagogia feministen bitartez, Gipuzkoako Hasierako Lanbide Heziketako zentro publikoetako gazteen parte hartze soziopolitikoa sustatuko dute, tokiko ekosistema eta zentroen artean sinergiak sortuz.

Emakumeekinbat! izango da bigarrena, eta horren bidez, emakume gazteek ahalduntzeko eta laneratzeko tresnak garatuko dituzte, teknika artistikoetan oinarritutako introspekzio sortzaile prozesu bitartez.

Hirugarren eta azkenak, berriz, Eragileekinbat! izena du, eta desabantaila egoeran dauden gazteek emantzipatzeko ezagutzak sozializatuko dituzte, enplegua ren bidez helduarora igarotzeko baliabideen gida eleaniztun batez baliatuz.

Lasarteoriatarrak tarteko

Arestian aipatu bezala, Ikertze kultur elkartea da Ekinbat! proiektuaren aliatuetako bat, eta bertako langilea da Nuria Fernandez lasarteoriatarra. ekimenaren gaineko informazioa, eta elkarte horrek izango dituen arduren berri eman dizkio TXINTXARRI-ri.

Azaldu du Ikertze-k orokorrean hezkuntza eta kulturarekin lotutako proiektuak garatzen dituela, eta hiru azpi programetatik Emakumeekinbat! garatzearen ardura izango duela Ekinbat! proiektuaren barruan.

Fernandezen eginbeharretako bat izango da lan egiten duen elkarteak burutu behar dituen lanak koordinatu eta kudeatzea izango da, proiektuan parte hartuko duten ikastetxeekin harremanak egitea, adibidez. Kontatu du Ekumeekinbat!en arituko den ikastetxeetako bat Lasarte-Oriako EAGI eskola izango dela; bertako emakumezko ikasleekin aurrera eramango dute. "Joan den ikasturtetik dugu harremana zentro horrekin, eta datorren ikasturteari begira proiektu hau egingo dugu beraiekin", gaineratu du. Bidebietako helduentzako eskolako ikasleekin ere egingo dute lanketa bera, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren pisu tutelatuetan bizi diren emakumeekin ere.

Programa horretan izango duen beste zeregin bat izango da arte terapeutei euren programa garatzen laguntzea: "Horiek izango dira saioak gidatuko dituztenak, eta horiek aurrera eramateko metodologia bat diseinatuko dugu". Arte terapia tailerrak egingo dituzte autoezagutza sustatu eta enplegagarritasuna eta inklusioa hobetzeko.

Horrekin guztiarekin batera, programan parte hartuko duten emakume gazte horien taldeak kudeatu eta haien jarraipena ere egin beharko du herritarrak: "Gazteengan gaitasun pertsonal, profesional eta sozialak sustatuko ditugu, lan ibilbidean arrakasta izan dezaten saiatuko naiz". Azkenik, lortu nahi duten aldaketaren inpaktua ebaluatzea eta lankidetza loturak eta aliantzak sortzeaz ere arduratuko dela azaldu du.

Ez da, ordea, programa horretan arituko den herritar bakarra izango; arte terapeutetako bat ere lasarteoriatarra da: Izaro Gabantxo.

Ikastetxe bakoitzarekin aurrez aurreko bost saio aurrera eramango dituzte.

EMAKUMEEKINBAT! PROGRAMA EAGI-KO IKASLEEKIN AURRERA ERAMANGO DUTE, BESTEAK BESTE.

Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

KOÖL STUDIO dendan erabiltzeko 30 euroko BONUA zozkatuko dugu izena ematen duzuen bazkideen artean.

Bazkide zara?

harpidetza@ttakun.eus helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta eta 646 82 44 66 (whatsapp)

KOÖL STUDIO CONCEPT STORE

Emakume sortzaileen txokoa
Bertako bitxien eskulanak
Poltsak, motxilak, turbanteak
Bertako kosmetika naturala
Haurrak: jolasak eta osagarriak

Buenetxea kafetegi-tabernan aurkeztu dute aurtengo Santa Anako pintxoaren ekimena. TXINTXARRI

Bakailao eta piperdun pintxoak, aurrekari

Arima, Buenetxea, El Punto, Herriko Etxea eta Hiru Aldeta ostalaritza establezimenduek elaborazio bereziak egingo dituzte igande honetan, Santa Ana egunaren atarian. 3 euroren truke pintxo goxo askoak jango dituzte herritarrek

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarteak ekimen interesgarria antolatu du aurten ere Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, Santa Ana egunera arteko (hilaren 26an izango da, asteartearekin) itxaronaldia zertxobait goxatzeko. Gauzak horrela, herriko bost ostalaritza establezimenduk pintxo goxoak prestatu eta 3 eurotan salduko dituzte igande honetan, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara: Buenetxea kafe-taberna, El Punto, Herriko Etxea, Hiru Aldeta eta Arimak parte hartuko dute.

Sukaldariek bi osagai erabili beharko dituzte nahi eta nahi ez jakiak elaboratzeko: bakailaoa eta piperrak. "Hortik aurrerakoak parte hartzaileen irudimenaren araberakoak izango dira", adierazi du Aterpeako lehendakari Mabel Pedreirak. Eskerrak eman dizkio Agustin Valdivia alkateari egitasmo hau aurrera eramateko emandako laguntzagatik eta lasarteoriatarrak animatu ditu aipatu bost establezimendu horietara joatera, pintxoak dastatzera. Hamarkada bat darama Aterpeak ekimen hori antolatzen eta harrera ona izan ohi duela azpimarratu dute aurkezpen ekitaldira bertaratu diren dendariek.

Iganderako plan polita izan daiteke pintxoan jan aurretik edo ondoren Okendo plazara bertaratzea, bertan egingo duten Santa Anako 39. Artisautza Azokara. 10:00etatik 14:00etara nahiz 17:00etatik 20:00etara irekiko ditu ateak feriak eta ohi bezala dozenaka posturen artean ibili ahalko dute herritarrek: jakiak, eskuz egindako tresna eta produktuak, ukenduak, arropa, bolilleren postua, Zurmailu elkarteko lagunen egurrezko lanak...

Iazko pintxoetako bat. TXINTXARRI

1976. urteko Santa Anako parodiaren uneetako bat. JULIAN SAGARDIA

Herriko gorabeherak, zirikatuz eta umorez

Lasarte-Oriako eguneroko kontuak dira Santa Ana eguneko parodiaren oinarria. Manuel Sagardia herritarrak 1951n berreskuratutako ospakizuna ia urtero ari gara aurrera eramaten oraindik. Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen dute egun

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bitxia da benetan Santa Anako parodiaren jatorria. Lasarte-Oria aldizkariko 160. zenbakian antzerki herrikoiaren jatorria jorratu zuen Danok Kide elkarteak eta Juan Mari Lekuona oiartzuarrak emandako azalpen bat jaso zuen, besteak beste. Lan horretan idazleak azaldu zuenez, XX. mende hasieran sortu zen, mozkortuta zeuden herritar batzuek Santa Ana karkaban zeuden ardo zahagi batzuei su eman zienean. Gertakari hori oinarri hartuta, bizilagunak herri epaiketa antzeztu bat aurrera eramaten hasi ziren urtero: bi alprojari egozten zizkioten herriko gauza txarrak urtero eta sutan kiskaltzen zituen deabru gaizto batek. Horrez gain, Santa Anak berak, San Joakinek eta Basajaunek ere parte hartzen zuten. Ezaguna zaizue hori, ezta?

Gure Etxea taberna kudeatzen zuen Manuel Sagardiak 1951n berreskuratu zuen Santa Ana eguna ospatzeko ohitura. Parodia ez zen egitarauko ekimen bakarra izan: herri meza, hamaiketakoa, Santa Ana karkaban *Agurra* dantzatzea eta bertan ikurrina jartzea. Horrez gain, arraun txapelketa bat ere antolatu zuen, Prueba Sagardia de Lanchas izenekoa: herritarrek talde ugari eratu zituzten eta Oria ibaiko uretan lehiatu ziren.

Galtzeko arriskuan

Santa Anako ospakizunak Manuel Sagardiak berak ordaindu zituen bere poltsikotik 1979. urtera arte, hil zen arte. Bere seme Julianek hartu zuen orduan jaia antolatzen jarraitzeko ardura eta gastuak bere gain hartzen. Urtez urte antzezlan gero eta txukunagoa egiten zuten eta pertsonaia ugari eratu zituzten antolatzaileek: mikeleteak, epaileak, fiskalak, Michelingo suhiltzaileak, eta abar.

Urte batzuk geroago Lasarte-Oriako Udalak hartu zuen parodia aurrera eramateko ardura eta Santanarrak izeneko taldea eratu zuen 1991n. Lau urte geroagokoa izan zen ekimen horren historiako une kritikoenetako bat, inork gidoia garaiz ez prestatzeagatik bertan behera utzi behar izan baitzuten.

Ttakun Kultur Elkarteak udalari eskatu zion jarduera hori antolatzea 1996an, eta, ika-mika batzuen ostean (udalak esan zion Santanatarrak taldearen izenpean joan behar zuela proposamenak, bestela ez zegoelako dirurik eta laguntzarik), burutu zuten azkenean, Santa Anako parodia berreskuratzea "ezinbestekoa" zelako, Manuelen biloba Nekane Sagardiak TXINTXARRI-ri kontatu zionez, urte horretako uztailaren 12ko aldizkarian. Horrez gain, antzezlanaren funtsa definitu zuen: "Parodiaren muina zirikatzea da, eguneroko gorabeherak umorez azaltzea".

Ttakunek berak eta udalak zeregin horretan dihardute gaur egun. Euskara elkartea antolakuntzan hasi zenetik asko areagotu da euskararen presentzia gidoian.

Toponimiaren webgunea zure eskura:
toponimia.lasarte-oria.eus
LASARTE-ORIAren ondarea

Erketzeko bi kide, karkaba parean dantzatzen. TXINTXARRI

Santa Ana karkaba, historia zabala duen igarobide estua

Bi etxe edo bi etxe ilararen arteko pasabide estua da karkaba bat, kale izatera iristen ez dena. Gure udalerrikoa Kale Nagusian dago eta Santa Ana izena hartzen du honezkero desagertua dagoen izen bereko etxebizitza bat zegoelako bertan. Etxelaster edo Zokoillunbe izenez ere ezagutzen omen zuten herritarrek eraikin hori. Zenbait dokumentutan topatutako forma gehiago ere erregistratu dituzte Lasarte-Oriako Udalak eta Aranzadi Elkarteak gure herriko toki izenei buruzko *toponimia.lasarte-oria.eus* webgunean: Santanaenea, Casa Sta Ana, Santa Ana, Santa Anako Karkaba, eta abar.

Egunerokoan ia oharkabean pasa daitekeen txoko hori berezi bilakatzen da uztail amaieran, 26an Santa Ana eta San Joakin eguna ospatzen dutenean lasarteoriatarrek. Ohitura bilakatu da karkabaren bi aldeetan dauden eraikinak lotzen dituen ikurrina jartzea eta Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariek saioa egitea parean, eguerdian. Horrez gain, eskuinaldean historia handiko saltoki bat dago, Gil farmazia, eta, metro batzuk atzerago, garai batean ATC taldean saskibaloian jokatutako emakume kuadrillaren bilgunea. Hamarkada askotako ohitura mantentzen dute eta astearte arratsaldero elkartzen dira euren lokalean, kontu kontari aritzeko.

ATC taldeko kideak, Erketzeko dantzariekin. TXINTXARRI

LASARTE-ORIAren ondarearen webgunea

QR kode hau eskaneatuz gero, Lasarte-Oriako toponimiari buruz gehiago jakiteko aukera izango duzu.

LASARTE-ORIA UDALA

Antzinako ofizioak, dantzaren bitartez

Dantza emanaldi dotore eta landua erakutsi du Ibarrako Alurr Dantza Taldeak. Lasarte-Oriako Kultura sailak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aurrera eramaten duen Kale Kultura zikloaren barruan antolatu dute hitzordua

Txintxarri

Doinu eta jantzi dotorez bete zuten hilaren 11n Okendo plaza Ibarrako Alurr Dantza Taldeak; *Laia* ikuskizuna erakutsi zien bertaratu ziren lasarteoriatarrei.

Ofizioak eta horietan erabili ohi diren lanabesak izan ziren, dantzariekin batera, emanaldiko protagonistak. Antzinako askotariko lanbideak ekarri zituzten 2024ko udako iluntze sargori batera dantza erakustaldiaren bitartez; jostunaren, nekazari eta abeltzainen, arrantzaleen eta batelarien lanbideak oholtzaratu zituzten, besteak beste. Horien guztien bitartez, itsasoari eta nekazal munduari lotutako bizimoduak ekarri nahi izan zituzten gogora.

Ikus-entzuleek tarte ederra igaro zuten. Antzeman zen emanaldia gustuko izan zutela; txalo zaparrada ederrak eskaini zizkieten emanaldian zehar.

Ikus-entzuleen ikusmina piztu zuen 'Laia' emanaldiak. TXINTXARRI

Antzinako askotariko ofizioak erakutsi zituzten dantzen bitartez. TXINTXARRI

Herritarrek parte hartu zuten Ganso&Ciaren ikuskizunean. TXINTXARRI

Baliabideetan, urria; irudimen eta umorean, berriz, joria

Ganso&Cia konpainiak 'Welkome&Sorry' antzeztu du Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan

Txintxarri

Durangoko Ganso & Cia taldeak 'Welkome&Sorry' antzeztu zuen hilaren 12an, William Shakespeareren *Hamlet* obra oholtzaratu nahi duten bi aktoreri buruzko lana. Tragediatik urruti, umorez beterikoa izan zen emaitza. Nahiz eta bi izan, Danimarkako printzea protagonista duen obra antzeztea erabaki zuten, antzezteaz gain, egin beharreko gainerakoa ere bien artean burutuz: atea irekitzeko soinua, elurra edo ahaztutako testua gogoratzeko oroitarazlearena. Ondo hasi ziren, baliabide faltari irudimenez aurre egin zioten, eta publikoaren barrea eragin zuten maiz, nahi bezala atera ez zitzaienean. Erregina, esaterako, erratzari arropa eta korodun kuboa jarrita irudikatu zuten.

Hasieran Hamlet antzeztu zuenak Claudiusen rola hartzean, ordea, protagonista gorpuzteko ardura hartu behar izan zuen besteak. Obrak aurrera egin ahala, aldi berean eszenarioan egon beharreko pertsonaia guztiak bien artean antzezterik ez zutela jabetu ziren. Irtenbidea bertaratutakoen artean zeudenek egitea izan zen.

Ekaineko saria, Ciriarentzat

Lorena Ciria Dafontek irabazi du Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen arteko ekaineko zozketa: Larrañaga harategian erabiltzeko 30 euroko erosketa bonua.

Euskara elkarteak iragarri du hilabete honetan Köol Studio dendan gastatzeko 30 euroko erosketa txartel bat zozkatuko duela izena ematen duten bazkideen artean.

TXINTXARRI

Karmengo Amaren omenez meza egin dute

Ohiko festak ospatu ez dituzten arren, Oriako bizilagunek gogoan izan dute Karmengo Ama Birjina hilaren 16an, urtero bezala. Juan Luis Murua eta Felix Garitano apaizek gidatu dute elizkizuna; udal ordezkariak eta herritar mordoxka bat joan dira hara

Txintxarri

Oriako auzotarrek uztailaren 16a aukeratu zuten Karmengo Ama Birjinaren omenezko festak ospatzeko, 1960an. Horren arrazoia hogei urte lehenago Brunet familiak pertsonaia erlijioso horren omenez eraiki eta inauguratutako kaperan dago. Urte horretako azaroaren 6an ireki zituen ateak eraikin horrek; aurretik; horren aurretik, San Pedro parrokiara etortzen ziren oriatarrak, Sebastian Kerejetak TXINTXARRI aldizkariaren 1.038. zenbakian gogoratu zuenez. XX. mende amaierako uholdeek eragindako kalteak tarteko, eliza berritu eta 2004ko uztailaren 10ean berrireki zuten, "txukunduta eta dotoretuta".

Karmengo Ama Birjinaren kaperak bezalatsu, bere omenezko jaiek ere aldaketak izan dituzte hamarkadaz hamarkada. Hasierako urteetako programa murrizten joan zen jarduerak antolatzeko zailtasunak tarteko. 90. hamarkada hasieran auzoko gazte talde batek egitarau oso bat antolatzeko ahaleginak egin zituen baina urte gutxiren buruan hilaren 16ko meza eta ondorengo bazkaria izan ziren jarduera bakarrak, 2014ra arte. Salbuespen gisa, 2004an arratsaldeko dantzaldia, 2006an Oriako Sorgin Dantza eta 2007 nahiz ondorengo urteetan Villabonako Solano Trikitixa Eskolako lagunen emanaldia antolatu zituzten.

2014an egitarau osoa berreskuratu zuen La Esperanza auzo elkarteak, udalaren eta zenbait eragileren laguntzarekin.

Dozenaka herritar bertaratu ziren Oria auzoko kaperara. TXINTXARRI

1940ko azaroaren 6an inauguratu zuten Oriako kapera. BRUNET FAMILIA

Auzotarrak, Oriako jaiez gozatzen, kalean. TXINTXARRI



Mezara joandako herritarrak, kapera atarian. TXINTXARRI

Auzoko gazteek antolatzen zituzten festak 90. hamarkada hasieran. TXINTXARRI

Oriako karmenak, analogikoan

Oriako auzotarrek 1960. urtetik ospatzen dituzte Karmengo Ama Birjinaren omenezko festak. TXINTXARRI aldizkaria 1994. urtean hasi zen horien berri ematen (aurreko urteko urriaren 1ean kaleratu zuen lehenengo zenbakia) eta geroztik urtez urte joan da bertara berri ematera. Argazki hauek 1996koak dira.

Bazkideen eguna ospatuko du Lasartearrak hilaren 31n

Luntxa, hildako bazkideei aitortza, trikipoteoa eta bazkaria egingo dituzte. Izena emateko azken eguna 25a da

Txintxarri

Lasartearra elkarteak jakinarazi du bazkideen eguna ospatuko duela hilaren 31n, San Inazio egunean. Zuzendaritza taldeak honako egitaraua prestatu du ospakizun berezi horretarako: luntxa, hildako bazkideei omenaldia, trikipoteoa herrian barrena eta bazkaria, Erribera kaleko 10. zenbakian duten egoitzan.

Festa horretan parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 25a baino lehen (osteguna) izena eman behar dute Lasartearraren egoitzan, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Udalerriko elkarte historikoetako bat da Lasartearra. Hori osatzen duten herritarrek 50. urteurrena ospatu zuten iaz eta makina bat ekimen aurrera eraman zituzten: bazkidearen eguna, danborrada, bertso afaria, aste gastronomikoa herriko zenbait sukaldarirekin elkarlanean, lagunarteko futbol partida eta solasaldia, eta abar.

Lasartearrak 50 urte bete zituen iaz. TXINTXARRI

Txoko eta kanpaldietan, gozatzen

Gaztetxoak, gustura

Ttakun Kultur Elkarteak hiru hamarkada pasatxo daramatza herriko haur eta gaztetxoentzako euskarazko aisialdi programak aurrera eramaten, baita udaran ere. Gauzak horrela, udako txokoak eta udalekuak aurrera eramaten ari da hilabete honetan zehar, programa erakargarri eta hezitzailea oinarri.

Txokoetan ari diren haurrek abentura zirraragarriak bizitzen dituzte egunero, udalerrian bertan gehienak (sanferminak, herri kirolak, Atsobakarreko egoiliarrei bisitak, desfile koloretsua...) eta baita ingurukoetan ere, astean behin egiten dituzten irteeretan. Hori gutxi balitz, bizitzan oso baliotsuak izango diren balioak jorratzen dituzte, hala nola, emozioen lanketa edota kulturartekotasuna.

Herritik at ttipi-ttapa aritu edo ari direnak hauek dira: LH 3 eta 4. mailakoak, Atxondon (Bizkaia) daude; LH5 eta 6koak, Azkaraten izan dira (Nafarroa); DBH 1 eta 2koak Abenturaz Blai dabiltza Araban barrena; eta, azkenik, DBH3 eta 4koei ez zaie batere kostatu Kosta ala Kosta ibiltzea Bizkaian eta Gipuzkoan.

Txokoetan parte hartzen ari diren LH3 eta 6. maila arteko haurrak kulturartekotasuna lantzen ari dira aurten.

Geltoki kalean hasi zen sanferminetako entzierroa. TXINTXARRI

Loidibarren pilotalekutik abiatuta, desfile ikusgarria egin zuten erdigunean barrena. TXINTXARRI

Okendo plazan zezenarengandik ihesi ibili ziren gaztetxoak. TXINTXARRI

Oriarte Landaberrin amaitu zuten desfilea, denek elkarrekin dantza eginez. TXINTXARRI

Txanda hasi berritan ongietorri argazkia eta kartelak egin zituzten. TXINTXARRI

Gaztetxo batzuk, herri kirolen egunean lokotx biltzen. TXINTXARRI

Bizkaia-Gipuzkoa ibilaldia egin dute DBH3-4ko ikasleek eta begirale taldeak. TTAKUN K.E.

DBH1 eta 2. mailakoek kanpaldi ibiltaria egiten ari dira Araban barrena. TTAKUN K.E.

Atxondon primeran pasatzen ari da LH3-4ko taldea. TTAKUN K.E.

LH5 eta LH6 mailetako haurrak, indarrak hartzen Azkaraten. TTAKUN K.E.

"Aire librean, sentsazioak onak izan arren, ez da jauzia atera"

NAROA FURUNDARENA URKOLA ATLETA

Pista estaliko Espainiako txapeldunorde izan da aurten herritarra, eta, aire librean, aldiz, laugarren postuan amaitu du lehia Ostadar SKTko kideak

Nerea Eizagirre

Naroa Furundarena Urkola (Lasarte-Oria, 2000) Espainiako atleta onenen artean izan da lehian aurten jauzi hirukoitza proban, bai pistan, baita aire librean ere; Gipuzkoako zein Euskadiko txapeldun da. Otsailean pistako Espainiako bigarren postua eskuratu zuen. Ekainean, Ostadar SKTk Kirolari Onena saria eman zion eta aire libreko Espainiako txapelketan laugarren izan zen podiumetik gutxira. Ostadar SKTko atletarekin bildu gara denboraldiko errepaso bat egiteko.

Podiuma zen aurtengo helburua?

Bai, aurtengo helburua podiumean egotea zen. Baina pista estalikoan lortu genuenez, beteta zegoen. Errepikatzea, lortu genezakeen zerbait zen eta pena horrekin geratu gara.

Pistako Espainiako txapelketan bigarren postua eskuratu zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Azkenean pozik geratu ginen emaitzarekin. Baina lehen jauziak ez ziren onak izan, ez zitzaidan atera, batean bermean kale egin nuen, bestea ez zen baliozkoa izan… Bosgarren jauzian lortu nuen nire marka, 12,81 metro. Tentsio momentua izan zen; gainerako lehiakideen zain egon behar izan nuen, batzuk oraindik bosgarrena egiteko zuten eta seigarren saiakera ere falta zen. Horretan ordena aldatzen zen eta azken aurrena egin nuen jauzi. Beraz, azken jauzia egin baino lehen bagenekien zilarrezko domina nirea zela.

Naroa Furundarena, jauzi hirukotzeko Espainiako txapelketan lehian. MOMENTODEPORTE

Aire librekoan, berriz, laugarren postuan amaitu zenuen?

Bagenekien guztia estu egongo zela. Ana Peleteiro kenduta gainerako bost edo seiak hamar zentimetro eskasera ginen. Bagenekien txapelketa ona egiten zuenak eramango zituela dominak.

Nire sentsazioak onak izan ziren baina ez nuen lortu jauzi ona. Batean zerbaitean oker egiten nuen; bestean, beste zerbait. Eta azkenean podiumetik zentimetro eskasera geratu nintzen.

Ana Peleteiro aipatu duzu, beste maila batean dagoela esan daiteke?

Gaur egun dagoen moduan, zaila da bere mailara iristea. Oso egun txarra izan behar du eta guk oso ona berarekin parera lehian egoteko. Europako txapeldun izan da eta maila handia dauka.

Aurten hamahiru metroko langa proba libreetan gainditu zenuen, baina txapelketetan ezin izan duzu.

Euskadiko txapelketan zentimetro batera geratu nintzen eta Espainiako txapelketan ere ez zen posible izan. Fisikoki hamahiru metroetara iristeko prest nengoela uste dut, baina ez zen jauzia atera. Maiatzean proba librean egindakoa gainditu nezakeela uste dut, baina azkenean lehiaketan gauza asko atera behar dira ondo eta ez dut zorterik izan.

Aurreko urteetako markak hobetzeko edo gerturatzeko nengoela uste dut, baina arantzatxo horrekin geratu naiz. Forma fisiko ona nuen, sentsazio onekin nengoen… ez zen jauzia atera.

Aire libreko Espainiako txapelketan gainera bi probatan parte hartu duzu aurten; luzera jauzian ere izan zinen lehian. Nola joan zen lehiaketa hori?

Pista estalian duela urte batzuk biak lehiatu nituen. Nahiz eta beste urteetan aukera izan dudan bietan parte hartzeko ere, normalean luzera jauziko lehiaketa jauzi hirukoitzeko baino lehen izaten da. Guk jauzi hirukoitzari begira egiten dugu entrenamendua eta horregatik txapelketa bakarra egin izan ohi dut. Aurten ordutegia ikusita, lehenengo jauzi hirukoitza eta gero luzera jauzia, biak egitea erabaki genuen.

"GAUR EGUN DAGOEN MODUAN, ZAILA DA GAINERAKOAK ANA PELETEIROREN MAILARA IRISTEA"

Bagenekien zortzi onenen artean sailkatzeko nire marka inguruan ibili beharko nintzela. Baina proban ez nuen nire eguna izan, sentsazioak ez ziren onenak; aurreko egunean lehiatu izanak ere ez zuen lagundu. Sentsazioak aurkitu ez nituelako amorruarekin geratu nintzen. Baina pozik nengoen bertan egoteagatik soilik. Gurean gauza askok baldintzatzen dute jarduna.

Esate baterako, Espainiako txapelketara iritsi nintzen eta ez nuen egun bat bera ere lehiatu euririk gabe. Aire librean gaude, berez eguraldiak ona izan behar du baina aurtenhoa ez da horrelakoa izan. Badakigu hemen zer daukagun eta euriarekin lehiatzea egokitu daiteke. Uste dut Euskadiko txapelketan libratu ginela, baina gainerako guztiak euritan egin ditugu.

Eta Michelingo kirol gunea azken hiruhilekoan ezin erabili izanak ere ez zuen lagunduko.

Martxotik aurrera zoramena izan da. Entrenatzeko zailtasunak izan ditugu eta egoerara moldatzea erronka bat izan da denontzat ongi entrenatu ahal izateko.

Euskadiko zein Gipuzkoako txapeldun nagusi zara jauzi hirukoitzean pista eta aire librean. Belaunaldi berririk ba al dator?

Egon ziren urte batzuk maila baxuagoa zegoela zirudiena, baina belaunaldi berriak datoz eta pare bat urteetan podiumean egoteko lehia gogorragoa izango dela uste dut bai Gipuzkoa baita Euskadi mailan ere.

Ekainean Ostadar SKTk Kirolari Onena Saria eman zizun. Zer moduz jaso zenuen aitorpena?

Pozarren, kluba osatzen duten pertsona guztiek Lasarte-Oriako kirolari onena saria jasotzeko niregan pentsatzeagatik eta Ostadarrek aitormen hori egiteagatik.

Denboraldia amaitu duzu? Edo hurrengo urtea prestatzen hasi zara?

Bai, amaitu dut denboraldia. Hala ere, azken hamabost egunetan taldekide batzuekin egon naiz entrenatzen laguntzeko.

Iraila hasieran hasiko gara berriro lanean, oraindik ez dugu helbururik. Entrenatzen hasi eta zer dagoen ikusi eta zehazten joango gara. Baina listo, orain deskantsatzera.

Elkarrizketa, osorik, *www.txintxarri.eus*-en

Arraun Lagunak, Bilboko itsasadarrean ere nagusi

Aiora Belartieta eta Nahia Goenaga kide dituen Lugañenek bandera eskuratu du Bilbon eta Sestaon. Bigarrenean, herritarrak dituzten bi ontzien arteko lehia izan da bigarren txandan eta Donostia Arraun Lagunak-ek probako errekorra egin du

Donostia Arraun Lagunak, Sestaoko bandera jasotzen. EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

Txintxarri

Itsasoan zein ibaian; erlojupekoan zein estropadan Donostia Arraun Lagunak-ek Euskotren Ligako proba guztiak irabazteko gai dela erakutsi du. Ez du hutsik egin Ligako jardunaldietan eta sailkapenean nagusi da Lugañene. Oraingoan Bilboko itsasadarrean Bilboko Hiria eta Sestaoko Udala banderak altxa ditu Donostiako ontziak.

Intza Fernandezen Hondarribia Bertako Igogailuak-ek nahiz eta bosgarren postua mantendu, goraka pauso bat eman du. Bilboko erlojupekoan hirugarren izan ostean, aurten lehenengoz Sestaon bigarren txandan aritu zen Ama Guadalupekoa eta herritarrak dituzten bi ontziak nor baino nor izan ziren lehian hilaren 14an.

Bilboko Hiria bandera erlojupeko proba izan zen eta irteerako ordena sailkapenaren alderantzizkoa izan zen. Horrela herritarren ontziak txanda bakoitzeko azken parte hartzailea izan ziren, Ama Guadalupekoa lehen txandakoa eta Lugañene bigarrengoa.

Berdeek 10.52,76 denbora egin zuten helmugan eta bigarren txandako ontzien zain geratu ziren. Orio eta Tolosaldean ezin izan zuten euren marka gainditu, Donostiako bi ontziak izan ziren hondarribitarrak baino azkarragoak eta bien artean, Donostia Arraun Lagunak izan zen garailea (10.28,32).

Aipatu legez, Bilboko sailkapenarengatik, Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak batera borrokatu ziren seigarren jardunaldian Sestaon. Lehen luzean eta ziabogan gainerako ontziak gertu izan arren, bigarren luzean aldea ireki zuen Lugañenek eta estropada eremuko errekor berria ezarri zuen helmugan, 10.22,26. Atzetik, aldiz, lehia bizia egon zen lehen eta laugarren kaleetan zeuden Orio Orialki eta Donostiarraren artean. Estu iritsi ziren marrara, baina mirotzek lortu zuten bigarren postua. Ama Guadalupekoak, aldiz, laugarren amaitu zuen lehia. 10.38,36 denbora egin zuen eta lehen txandako Tolosaldea edo Hibaika baino azkarrago izan zen.

Galiziara berriro

Hurrengo bi jardunaldietan, Galiziako uretara itzuliko dira traineruak; Ribeiran Bandeira Barbanza Arousa lehiatuko dute eta Boiron, aldiz, V Bandeira de Traiñeiras Feminina Rianxeira.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

PALA

SANTA ANA TXAPELKETA

Santa Ana Pala txapelketako azken neurketa jokatuko dute.
Larunbata. 11:00. Loidibarren pilotalekuan.

S. ANA TXAPELKETA, FINALERDIAK

Santa Ana Pala txapelketako finalerdiak jokatuko dira.
Astelehena. 18:30. Loidibarren pilotalekuan.

S. ANA TXAPELKETA, FINALA

Santa Ana Pala txapelketako hirugarren postua eta finala lehiatuko dira.
Ostirala 26. 17:30 eta 18:30. Loidibarren pilotalekuan.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko Eider Redondo 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan partea hartuko du.
Larunbata eta igandea. Lleida, Katalunian.

IGERIKETA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko bost infantil Espainiako txapelketan lehiatzen ari dira.
Igandera arte. Sabadell, Bartzelona, Katalunian.

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek absolutu mailako Euskal Herriko txapelketan parte hartuko du.
Larunbata eta igandea. Majori kiroldegia, Ordizian.

TXIRRINDULARITZA

DORLETAKO AMAREN SARIA

Caja Rural-Alea taldeko Beñat Carbayeda herritarrak Dorletako Amaren XLVI Sari Nagusia proba lehiatuko du.
Igandea. 09:30. Leintz Gatzagan.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko laugarren jardunaldia jokatuko da. Bost lasterketa izango dira.
Igandea. 18:45. Hipodromoa, Donostian.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Herritarrak kide dituzten Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako igogailuak Bandeira Barbanza Arousari aurre egingo diote.
Larunbata. 17:25. Ribeira, A Coruña, Galizian.

Donostia Arraun Lagunak zein Hondarribia Bertako igogailuak ontziek V. Bandeira de Traiñeras Feminina Rianxeira lehiatuko dute.
Igandea. 11:25. Boiro, A Coruña, Galizian.

ERRUGBIA

OZEANIAKO BIRA

Alex Saleta herritarra kide duen Espainiako Selekzioak Tongaren aurka neurtuko ditu indarrak. Herritarra aulkian izango da.
Ostirala. 04:30. Nuku'alofa, Tongan.

Lehia ederrak izan dira hirugarren jardunaldian

Donostia Turismo saria denboraldiko sari nagusien hautagaiez gozatzeko lehen aukera izan da

Salmarak eta Alejandro Gutierrez Val, helmuga igaro ostean. ISAAC FARRE

Txintxarri

Udako denboraldiko sari nagusien prestaketa probak hasi dira Donostiako Hipodromoan. Hirugarren jardunaldian, Donostia Turismo Saria jokatu zen eta iaz Maria Cristina Hotela eraman zuen Salmarak bere hautagaitza erakutsi zuen eguneko bosgarren lasterketan.

Bugatiko bihurgunetik hasita Alejandro Gutierrez Val-ek muntatutako behorrak pixkanaka postuak irabazi zituen eta azken 200 metroetan erritmo aldaketa erabakigarria egin zuten saria erdiesteko.

Sheikh Zayed Bin Sultan Al Nahyan Listed Cup-ek eman zion hasiera arratsaldeari. Arabiar arraza garbiko zaldu eta behorrek ikuskizun ederra eman zuten. *Fateenah*-Mickaël Forest eta *Asslan Al Shahania*-Guillaume Guedj-Gay bikoen arteko borroka bizia izan zen proba osoan zehar; buruz buru egon ziren baina azken metroetan *Fateenah* behor beteranoa garaile atera zen.

Gipuzkoako Kirol Prentsaren Elkartea sarian Hugo Mouesan-ek gidatutako *Baby Groom* izan zen nagusi 2.000 metroko proban.

Lehia ederra izan zen ere Autocares David sarian. Azken 300 metroetan, buruan zeuden Jaime Gelabert-*Eurialo* bikoari *El Cantizal*-Alejandro Gutierrez Val eta *Rayc*-Ricardo Sousa gerturatu zitzaizkien atzetik. Helmuga marrara estu iritsi ziren arren, bi moxalak ez ziren gai izan *Eurialo*-ri garaipena kentzeko.

Onda Vasca sarian eta Garda Seguridad sarietan ere lehia polita ikusi zen azken zuzengunean. Lehenean *Walkczak*-Nicolas de Julian bikoak buru zen *Viking City*-Hugo Mouesan gainditu zuen eta garaipena erdietsi zuen.

Azken saria ere Nicolas de Julianek eraman zuen, oraingoan *Hebe* gidatuta. Zuzengunean buru jarri zen bikoa eta azken metroetan *Grazalema*-Ricardo Sousarekin borroka ederra izan zuen. De Julian eta *Hebe*-k ederki eutsi zioten lehen postuari eta lasterketa irabazi zuten.

Hilaren 21ean, 18:45etik aurrera, jardunaldi berriaz gozatu ahalko dute zaletuek. Horretan bost lasterketa izango dira eta horietako bietan Donostiako Urrezko Kopako hautagaiak ikusi ahalko dira lehian.

Herriko korrikalariak, mendian zein errepidean

Lasarte-Oriako ordezkariak mendi eta errepide lasterketa ugaritan lehiatu dira azken hilabeteetan. Distantzia luze edo motzak, batzuk lehen postuetan izan dira. Borja Granado Macazaga, esaterako, Euskal Herriko Kopako podiumean izan da

Borja Granado (irudian, eskuinean), Euskal Herriko kopako podiumean. EMF

Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariak eta mendizaleak lasterketaz lasterketa ibili dira azken hilabeteetan mendi probetan izan dira emaitzarik aipagarrienak eta zehazki ekainaren 29an lehiatu ziren Desertica Oliveira Belchite (Zaragoza) eta Ortigosa de Cameros (Errioxa) proban lehen postuetan izan ziren herriko LOTMEkoak.

Ines Aguado Errioxako probako podiumera igo zen. 33 kilometroko ibilbidea 04.43.49an egin zuen Lasarte-Oriako kirol elkarteko kideak eta emakumeen sailkapen orokorrean hirugarren amaitu zuen; beterano mailan, aldiz, lehena. Ibilbide motza (11 k.) egin zuen Alberto Calvok.

Mertxe Casasek, aldiz, Belchiteko probako 20 kilometroko lasterketan parte hartu zuen eta 02.59.03 eginez beterano mailako laugarren postua eskuratu zuen.

Horiez gain, taldekide Marc Bagesek Domus Teknik 40 MLK (65 km) eta Zegama Aizkorri Mendi maratoiak amaitu zituen; azken horretan LOTMEko kide Xabier Mujika ere izan zen. Mujikak gainera Camille Extreme ere lehiatu du aurten.

T3T eta T2T proban ere izan zen herritarrik; ibilbide luzean LOTMEko Xabier Aizpurua eta Axeriak taldeko kide Beñat eta Iurgi Los Arcos anaiak eta motzean, Iban Gutierrez eta Jose Ignacio Elvira herritarrak zein LOTMEko Miguel Granado.

Kaleko lehietan azkena, Trintxerpeko 5K Karmengo Jaiak proba izan da. Bertan Gorka Gil eta Raul Gomez Margallo berriro ikusi ahal izan ditugu lasterka eta lehen postuetan, seigarren eta zazpigarren iritsi ziren helmugara, hurrenez hurren.

Kopako podiumean

Bestetik, ehunmilak, G2h eta Marimurumendi maratoia lehiatu ziren hilaren 13an. Proba horietako podiumean lasarteoriatarrik egon ez arren, Borja Granado Macazaga herritarra oholtzara igo zen. Euskal Mendizale Federazioak Euskal Herriko Kopako sariak banatu zituen absolutu zein beterano A eta B mailan eta Granadok Beterano A mailako hirugarren postua eskuratu du 250 puntu batuta.

Maider Lizarraga eta Aimar Sukunza herritarrak, korrika. OTO/FESTAK.COM

Udako etenaren aurretik, herriko triatletak ederki lehiatu dira

Lasarte-Oriako kirolariak Lekeitio, Legutio edo Uribarri Ganboan euren mailako lehen postuetan sailkatu dira

Txintxarri

Legutioko Triatloi olinpikoa lehiatu eta Euskal Federazioak babestutako triatloi denboraldiak etena izango du irailera arte. Herriko ordezkariak Bizkaia eta Araba aldean izan dira lehian azken asteetan eta euren mailako lehen postuetan sailkatu dira.

Ekainaren 22an, Lekeitioko 31. Nazioarteko Triatloia jokatu zen. Zumeatarra taldeko Aimar Sukunzak helmugan 01.03.08 marka egin zuen; sailkapen orokorreko hamaikagarren izan zen eta 23 urtez azpiko mailan, aldiz, laugarren sailkatu zen. Taldekide Urko Izagirre eta Trinkoko kide Mikel Izagirre ere izan ziren lehiaketan eta 01.14.18 eta 01.18.51 egin zituzten, hurrenez hurren.

Hilaren 6an, Arabako Legutio herrian triatloi olinpikoko proba lehiatu zen. Lehiakide guztien artean Zumeatarra taldeko Maider Lizarraga Erro izan zen. Herritarrak 03.14.37ko marka egin zuen eta beterano 1 mailako bosgarren sailkatu zen.

Igeriketa eta lasterketa batzen dituen SwimRun C.N. Aldayeta proba ere izan zen ekainaren 15ean. Uribarri Ganboako urtegian antolatu zen proban Euskadiko txapelketa ere zegoen jokoan. Banakako zein taldekako proba ezberdinak izan ziren eta 5 kilometroko lasterketa mistoan Itziar Galdos eta Aitor Lopez de Suso herritarrek osatutako Swimrun Lasarte bikoteak laugarren postua eskuratu zuen, 50.51 eginez.

Santa Ana pala txapelketako finalerdiak, hilaren 22an

Hilaren 20an jokatuko da ligako azken neurketa eta horren ostean, finalerdiko bikoteak osatuko dira

Txintxarri

Santa Ana Pala Txapelketa azken fasera iritsiko da hurrengo astean. Ekainetik itzuli bateko liga jokatu dute zortzi bikotek Loidibarren pilotalekuan eta hilaren 22an, lehen lau sailkatuek finalerdiak jokatuko dituzte 18:30etik aurrera.

Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzolak osatutako bikoteak jokatutako neurketa guztiak gainditu ditu eta sailkapeneko buru bezala finalerdietako batean izango dira lehian. Xabi Arteaga eta Haritz Urkia bikoak ere sei neurketa irabazi ditu eta bigarren finalerdietan borrokatuko dira. Horien aurkariak hirugarren sailkatu diren Eneko Sarasola eta Oier Odriozola izango dira.

Laugarren bikotea oraindik zehazteke dago. Bihar, hilaren 20an, ligako azken norgehiagoka jokatuko da eta horren arabera, osatuko da lehen finalerdia.

Finala eta hirugarren postuko lehia, ohi moduan, Santa Ana egunean, hilaren 26an, jokatuko dira Loibarren pilotalekuan. 17:30ean hasiko da pilota jaialdia; final handia 18:30ean hastea espero da. Aurretik, aipatu legez, hilaren 22an, astelehenarekin, finalerdiak ikusteko aukera izango dute zaletuek.

Zikuñaga txapelketa

Esku pilotari dagokionez, Intza KEko Peru Urdanpilletak ez du atsedenik eta Zikuñaga Papelera txapelketa jokatzen ari da Hernanin Ospeleko Albeniz lagun duela. Nagusien zilarrezko mailan ari da lehiatzen herritarra, bi neurketa jokatu dituzte baina zortea ez dute aldeko izan.

Ez zuten txapelketa ongi hasi hilaren 11n, Intxurreko Oiarbide eta Hernaniko Etxarri izan zituzten aurkari eta 18-6 galdu zuten. Bigarren neurketan, hilaren 15ean, Gorostidi-Iriarte (Zazpi Iturri-Oiarpe) bikoaren aurka lehiatu eta 8-18 gailendu ziren aurkariak.

Begiristain anaiak eta Brosa-Zumeta, garaikur eta oroigarriekin. GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA F.

Trinketeko paletan txapeldun

Jon eta Mikel Begiristain herritarrak (Errepala 2) Trinketeko Kluben arteko Gipuzkoako txapelketan lehiatu dira larruzko pala modalitatean eta iazkoaren antzera, txapeldun izan dira aurten ere. Lasarte-Oriako anaiek euren taldekide Aitor Brosa eta Jon Zumeta (Errepala 1) izan zituzten aurkari ekainaren 15ean Irurako Ametsa Trinketean jokatutako finalean. Neurketa borrokatua izan arren, Begiristaindarrak 34-40 gailendu ziren.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

· txintxarri.eus/zorionagurrak.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Bidali zorion agurra formularioa betez.
· Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 19	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 20	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 21	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 22	URBISTONDO
ASTEARTEA, 23	GIL
ASTEAZKENA, 24	DE ORUE
OSTEGUNA, 25	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00
Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

SUDOKUA

		9				6		8
6			9	4	5		3	
		1		7		5		
8	7		4				2	
	3		1	2				5
	1			8	9			
				6	2	4		
	8	3						6
5			3			9		

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK
· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK
· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINTZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan, doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

17 urteko neska euskaldun bat naiz, Batxilergoa egiten ari dena Zientzia alorretik. Udan zehar haurrak zaindu eta eskolak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

21 urte ditut eta udaran haurrak zaintzeko lan bila nabil. Interesa izanez gero harremanetan jarri zaitezke, 634 41 95 78.

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informeak ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informeekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

www.txintxarri.eus

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Gari Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Aimar Hernandez eta Ander Hazas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Erakusketa
Mari Jose Martin *Alma Guiada* artista lasarteoriatarraren margolanak jarri dituzte ikusgai.
Jalgi Kafe Antzokia, 10:00etatik 22:00etara.

LASARTE-ORIA Entsegua
Santa Ana eguneko parodia antzeztuko duten aktoreek entsegua egingo dute.
Kultur etxeko auditorioa, 18:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Barsanti Teatroa taldeak *LJ75* antzezlanaren emanaldia egingo du, Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean aurrera eramaten duten Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.
Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan.

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Azoka
Santa Ana egunaren aurrekari gisa 39. Artisautza Azoka aurrera eramango dute. Dozenaka posturen artean ibiliko dira bertaratzen direnak: jakiak, edariak, eskuz egindako tresnak, arropa...
Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Gastronomia
Santa Ana egunaren aurrekari gisa herriko zenbait ostalaritza establezimenduk pintxo bereziak (bakailaoa eta piperrak izango dira osagaietako bi) salduko dituzte 3 eurotan. Arima, Buenetxea, El Punto, Herriko Etxea eta Hiru Aldetak parte hartuko dute. Aterpea merkatarien elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatu dute jarduera, elkarlanean.
Arima, Buenetxea, El Punto, Herriko Etxea eta Hiru Aldeta, 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Azoka
Santa Ana eguneko aurrekari gisa 39. Artisautza Azoka aurrera eramango dute. Dozenaka posturen artean ibiliko dira bertaratzen direnak: jakiak, edariak, eskuz egindako tresnak, arropa...
Okendo plaza, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ASTELEHENA 22

LASARTE-ORIA Entsegua
Santa Ana eguneko parodia antzeztuko duten aktoreek entsegua egingo dute.
Kultur etxeko auditorioa, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEARTEA 23

LASARTE-ORIA Entsegua
Santa Ana eguneko parodia antzeztuko duten aktoreek entsegua egingo dute.
Kultur etxeko auditorioa, 18:00etatik 20:00etara.

ASTEAZKENA 24

LASARTE-ORIA Entsegua
Santa Ana eguneko parodia antzeztuko duten aktoreek entsegua egingo dute.
Kultur etxeko auditorioa, 18:00etatik 20:00etara.

ZUBIETA Jaiak
Zubietako Jai Batzordeak egitaraua prestatu du festak ospatzeko:
19:00etan, jaien hasiera: txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txosna irekiko dute, Elene eta Anuk-ek girotuta.
21:00etan, herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
Afalostean, erromeria, Itzal taldearen eskutik.
Zubieta, 19:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 25

ZUBIETA Jaiak
Zubietako Jai Batzordeak egitaraua prestatu du festak ospatzeko:
09:00etan, esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.
11:00etan, meza nagusia.
Ondoren, hamaiketakoa Joko Garbi elkartearen eskutik eta sokadantza.
17:30ean, dantzaldia, Patxi eta Konpainiarekin.
19:30ean, bertsolariak: Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi eta Asier Azpiroz. Zortzitan Bertso Eskolako kideek jarriko dizkiete gaiak.
Zubieta, 09:00etatik aurrera.

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Santa Ana eta San Joakin eguna ospatzeko egitaraua prestatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean, goizetik hasita:
11:00etan, Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ondoren, luntxa egingo dute alboko plazan.
12:00etan, Erketz EDTko kideen dantz asaioa, Santa Ana karkaban.
18:30ean, parodian parte hartuko duten kideen desfilea, herrian barrena. Hauxe da egingo duten ibilbidea: Jalgi Kafe Antzokia, Tajamar biribilgunea, Kale Nagusia (Ilargitik Arkuperaino) eta Okendo plaza, Gure Etxea taberna paretik sartuta.
20:00etan, Santa Ana eguneko parodia umoretsua, Okendo plazan. Antzezlanari ekin aurretik Islada Ezkutatuak taldea omenduko dute antolatzaileek eta bertso batzuk abestuko dizkio Lierni Rekondo lasarteoriatarrak.
Lasarte-Orian barrena, 11:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Lasartearra elkarteak Bazkidearen Eguna aurrera eramango du bere 51. urteurrena ospatzeko. Luntxa, hildako bazkideei aitortza, trikipoteoa eta bazkaria antolatu ditu zuzendaritza taldeak. Ekimen horietan parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 25a baino lehen izena eman behar dute.
Lasartearra elkartearen egoitza (Erribera kalea, 10), egun osoz.

ANTZERKIA

LABURPENA

'LJ75'
Zuzendaria: Pako Revueltas. **Gidoia:** Pako Revueltas. **Ekoizlea:** Mama Crea. **Lurraldea:** Bizkaia (2024). **Iraupena:** 50 minutu. **Generoa:** Komedia. **Aktoreak:** Pako Revueltas, Aritza Rodriguez, Asier Fragas eta Juanjo Otero.

Aro berri baten hasiera

Mundu guztiaren ahotan dagoen LJ75 kanpaina soziala aurkeztuko dute pertsona ezezagun batzuek gure herrian. Sustatzaileek adierazi dute "aro berri baten hasiera" izango dela eta askatasunaz, justiziaz eta giza eskubideez hitz egingo dutela. Zer ote dago hitz polit horien atzean? Zeintzuk dira proiektu horren bultzatzaileen benetako asmoak eta nortzuk dira oraindik inork ikusi ez dituen "sustatzaile eraginkor" horiek?

Proposamen eta galdera misteriotsu horiek botatzen ditu Barsanti Teatroak bere kale ikuskizun berrian, *LJ75* izenekoan. Maiatzean estreinatu zuten Leioan (Bizkaia) eta herriz herri ibili dira geroztik, "inguratzen gaituen populismoen arriskuaz hitz egiten duen komedia" han eta hemen erakusten.

SANTA ANA
2024
uztailak 26
11:00etan
Santa Ana eguneko meza, Ama Brigitarren komentuan. Ostean, luntxa.
12:00etan,
Erketz EDTren dantza, Santa Ana karkaban.
18:30ean,
Desfilea herrian barrena
20:00etan,
Santa Ana parodia. Okendo plazan*
Ttakun Kultur Elkartea
LASARTE-ORIA
Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
* Eguraldi txarra eginez gero Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo da.

2024 UDA
argazki lehiaketa
TXINTXARRI ALDIZKARIA
txintxarri
txintxarri@ttakun.eus
646 82 44 66 (WhatsApp)
txintxarri.eus/lehiaketa
Epaimahai saria aldika produktu bereziak
Bozka gehien saria erriGora